



ARARTEKOAREN AGERRALDIA EUSKO LEGEBILTZARRAREN OSOKO BILKURAN: 2007. URTEKO TXOSTENA

Vitoria-Gasteiz, 2008ko maiatzaren 30a

I. SARRERA

Legebiltzarreko lehendakari andrea, mahaikideok, lehendakari jauna, legebiltzarkide jaun-andreok, gobernukideok. Egunon.

Ohorea da niretzat Legebiltzarraren osoko bilkura honetan agertzea Ararteko erakundearen 2007. urteko ohiko txostenaren berri emateko. Izapide honetan, pozik betetzen dut, Legebiltzarraren goi ordezkari gisa, Ararteko erakundeak 2007an burutu dituen jarduerak ganbera honi jakinarazteko betebeharra.

Orain dela bi aste Giza Eskubideen eta Herritarren Eskaren Batzordearen aurrean agertu nintzen, txosten honexen berri emateko. Nire mintzaldian, aurreko urteetan erabilitako eskemari jarraiki, azterketa kuantitatiboa egin nuen, laburki azaldu nituen erakunde honek burututako jarduerak, txosten berezi edo monografikoak ezagutarazi nituen, baita gomendio orokorrak ere, eta agerian jarri nuen administrazioaren organo jakin batzuek Arartekoari laguntzeko betebeharra ez betetzeari eusten diotela. Osoko Bilkuraren aurrean egiten ari naizen azalpen hau Batzordearen aurreko agerraldiaren osagarria da eta, jakina, ez ditut jorratuko dagoeneko azalduta dauden gaiak; aitzitik, ohikoa denez, gure eskumen-eremu subjektibo eta materialaren arabera politikaren diagnostikoa egingo dut, betiere gizakien eskubideak behar bezala babestearen ikuspegitik.

Zehaztu nahi dut Ararteko erakundeak euskal herritarren eskubideak gauzatzeari buruz egin dezakeen balorazioa bere eskumen-eremuaren mugek baldintzatzen dutela. Eskumen-eremu horretatik kanpo geratzen dira Estatuko administrazioa, Justizia administrazioa eta partikularren arteko harremanen alorra. Zuek denok dakizuen bezala, erakunde honek kontu handiz errespetatzen du bere eskumen-eremua; hori, legezko betebeharra izateaz gain, Arartekoaren independentziarako eta sinesgarritasunerako berme indartua ere bada. Hortaz, gure adierazpen guztiek gure jardueraren bat izan behar dute euskarri, kexa-espediteren batekoa edo urteko txostenaren edo txosten monografiko edo berezien bitartez politika publikoek egindako monitorizazioaren ondoriozkoa. Edonola ere, kultura eta giza eskubideak errespetatzeko balioak sustatzearen eta defendatzearen alde lan egitea ere badagokigu, baina lan hori, arestian aipaturiko irizpideekin bat etorritik, pertsonen eskubideen eremu zabalean dihardugun erakundeok eskuarki onartzen ditugun printzipio eta ideien mailan egin behar dugu, eta eskubide horien oinarriak zaintzearen ikuspegi etikotik.

Ararteko erakundearen helburu nagusia, beraz, pertsonen eskubide guztiak defendatzea da, batik bat egoerarik txarrean daudenenak. Horregatik, aurreko urteetan bezalaxe, politika publikoen arreta berezia merezi duten biztanle-sektoreak





edo taldeak izango dira azalpen honen ardatz nagusi. Arrazoi ezberdinengatik merezi dute arreta berezia: benetan arriskuan daudelako edo egon daitezkeelako, gizarte diskriminaziozko edo bazterkeriazko elementuek bere horretan jarraitzen dutelako edo eskubideak benetan eta modu eraginkorren gauzatzeko orduan gabeziak daudelako.

Ahulezia-egoerak sortzen dituzten zertzeladak desagerrarazten badira edo, batzuetan, osagarri moduan, ekintza positibozko neurriak sustatzen badira, berdintasunez eta duintasunez gauzatu ahal izango dira denon eskubideak.

Mintzaldi hau egiteko aukeratu dudan metodoak eta denbora mugatua izateak ez didate utziko interesgarriak iruditzen zaizkidan txosteneko kapitulu batzuk aipatzen. Alabaina, azalpen honetan ez jorratu arren, legebiltzarkieoi bidali zitzaizuen urteko txostenean aurkituko dituzue, bi aurkibiderek, bata sistematikoa eta bestea gaien arabera, interesatzen zaizuen informazioa errazago aurkitzeko.

Lehen kapituluan, erakunde bideratu ditugun espedientei buruzko informazioa aurkituko duzue, gaien arabera arloetan azalduta. Espediente horietako askotan osasuna, hezkuntza, etxebizitza, ingurumen egokia izateko eskubidearekin lotutako gaiak ebatzi dira, edo hizkuntza-eskubideekin, funtzio publikorako sarbidearekin, diru-laguntzak jasotzearekin, eta abarrekin zerikusia zutenak. Zenbaitetan, administrazioak oker jokatu duela eta jokaera horrek, batzuetan, eskubide horietakoren bat gauzatzean eragin kaltegarria izan duela antzeman dugu. Halako kasurik gehientsuenak ondo konpondu dira.

Gure legeriaren funtsezko mamia osatzen duten arauetako batean ezarritakoaren arabera, botere publikoek beharrezko baldintzak sustatu behar dituzte, euskal gizarte osatzen duten herritar guztien askatasuna eta berdintasuna eraginkorrak eta benetakoak izan daitezen, eta eskubide horiek gauzatea eragotzi edo zailtzen duten oztopoak kendu behar dituzte.

Begi-bistakoa da eskubideak eta askatasunak formalki onartuta badaude ere, euskal herritar askok ez dituztela horiek modu eraginkorren erabiltzen.

Ararteko erakundearen ustez, Konstituzioaren 10. artikulua funtsezko erreferentia da Euskal Autonomia Erkidegoan eskubideak babestearen gaia nola dagoen baloratzeko. Artikulu hori Konstituzioaren I. tituluaren atariko da; titulu horretan jaso eta arautzen da gizon-emakumeen oinarrizko eskubide eta betebeharren sistema. Hortaz, oinarrizko eskubideen funtsezko zutabea da gizakiaren duintasuna, hau da, gizabanakoaren autodeterminazio eta askatasunarekiko errespetua, eta norberaren bizitza egiteko eta garatzeko eskubidea, norberaren ezaugarrien eta borondatearen arabera, elkarrenganako errespetu osoz. Eta zutabe horrek eusten die oinarrizko eskubide guztiei. Gainera, lehenbiziko artikulua horretan bildutako ordenamendu juridiko-konstituzionalaren balio nagusiek (askatasuna, justizia, berdintasuna eta aniztasun politikoa) eskubideen sistema osoan izan behar dute eragina. Ararteko erakundearen jardura guztien helburua pertsonen duintasuna eta balio demokratikoak errotik zaintzea da.





Ikuspegi horretatik, ararteko honek argi eta garbi adierazi nahi du bizitzarako eta osotasun fisiko eta moralerako eskubidea beharrezko baldintza dela gainontzeko eskubide guztiak gauzatzeko. Horregatik, salaketa irmoa egin nahi dut ETA talde terroristak eskubide horiek urratzearen kontra.

Zoritxarrez, 2007an ETAk atentatu hilgarriak burutu ditu berriz, Fernando Trapero eta Raúl Centeno gazteak hil ditu, eta aurren ere hiltzen jarraitu du.

Gure elkartasuna adierazi nahi diegu terrorismoaren biktima berri horien hurbileko pertsonen, haien familiei eta lagunei, eta zeharo gaitzetsi halako giza eskubide oinarrikoen aurkako ekintzak. Berriz ere adierazi beharra daukagu funtsezkoa dela botere publiko guztiak parte har dezaten ETA talde terroristak egiten duen indarkeriaren erabilera gizartean eta politikan deslegitimizatzeko.

Gainera, herritar asko eta asko bizia edo osotasun fisikoa galtzeko mehatxupean bizi dira, beren askatasuna mugaturik ikusten dute. Herritar ugari estortsio ekonomikoaren mende daude oraindik ere, eta beren askatasun eta ondasunen kontrako indarkeria jasaten ari dira.

Indarkeria gaitzesteko ikuspuntu etiko beretik, tinko gaitzetsi behar dugu, halaber, "kale borroka" deritzanaren ekintzak, izan ere, pertsonen askatasunerako eta osotasunerako eskubideak urratzen dituzte.

Beraz, lehen aipatu ditugun balio demokratikoak modu eraginkorrean babestu nahi baditugu, hauxe esan behar dugu foro honetan: botere publiko guztiak hitz eman behar dute egunero gure demokrazia hobetzen lan egingo dutela, eta eskubideak babesteari dagokionez, demokrazia mailarik gorenera igoko dutela. Arartekoak bere eskumenak erabiltzean burutu dituen jardueren ikuspuntutik, eta eremu horretan gure lana antolatzeke eratu ditugun hamaika arloei buruzko politika publikoak baloratu baino lehen, bidezkoa iruditzen zait zuekin hainbat printzipio partekatzea, izan ere, gure ustez, printzipio horiek zehazten dituzte erakundeetan eta gizartean aurreratua den demokraziaren oinarriak. Eredu hori lortzeko jardun behar dugu egunero lanean. Honako ezaugarri hauek ditu: eskubide sozial oso garatuak eta zabalak ditu, benetako berdintasuna eta kohesioa nahiz gizarteratzea bermatzeko; sistema eraginkor eta aurreratua du eskubideak bermatzeko, bai eskubide zibilak, politikoak eta sozialak, bai eskubide sortu berriak.

Politika publikoetan tinko borrokatu behar da indarkeriaren kontra –gizaki batek beste baten aurka erabilitako indarkeria ororen kontra–, gogotik lan eginez indarkeria deslegitimizatzen, prebenitzen, gizartea sentibilizatzen, biktimak laguntzen eta babesten, e.a., eta erabakitasun osoz eta irmo babestuz bizitzarako, osotasun fisiko eta moralerako, askatasunerako eskubidea. Horretarako, politika bereziak sortu behar dira, indarkeria mota bakoitzean (indarkeria terrorista, emakumeen aurkako indarkeria matxista, adingabeen eremuko indarkeria, e.a.) agertzen diren zertzeladak berriaz eragozteko.





Bestalde, botere publiko guztiek lehentasun osoko helburutzat jo behar dute egunero lanean aritzea bazterkeriarik gabeko, bere aniztasunean gero eta inklusiboagoa eta kohesionatuagoa izango den gizarte bat lortzeko.

Era berean, politika publikoetan modu eraginkorragoan lan egin behar da zertzelada pertsonalen batengatik inor diskrimina ez dezaten. Horretarako, desagerrarazi egin behar dira aurreiritziak, gorrotoak, fobiak eta demokraziaren kontrako balioak, esate baterako, matxismoa, sexismoa, arrazakeria, homofobia edo xenofobia.

Ondo administratuak izateko eskubideak izan beharko luke herri-administrazioen eta herritarren arteko harremanen paradigma berriaren ardatz nagusi. Paradigma horretan, eskubide horrek bere ahalmen-sorta hedatu beharko luke, parte hartzeko demokrazia baten ikuspegitik (horrek dakartzan ondorio guztiekin).

Bere oinarrizko printzipioekin bat etorritik jokatu nahi duen demokrazia eskubide bermatzaile batek arreta berezia eskaini behar die delinkuentziaren kontra borrokatzeko erabiltzen dituen tresnei, eta kontu handiz zaindu behar du zuzenbideko estatuaren funtsezko eskubideak eta printzipioak salbuespenik gabe beteko direla, bai tresna horiek erabiltzen direnean, baita askatasunik gabeko eremuetan ere: polizia-etxeetan eta espetxeetan. Horrela, eremu horietan erabat desagerrarazi behar da tortura edo tratatu txar fisiko nahiz psikologikorik txikiena ere, behar-beharrezkoa baita. Eremu horietako agintari eskudunek oinarrizko printzipiotzat eta salbuespenik gabekotzat hartu behar dute tortura eta tratatu txarren aurrean tolerantzia izpirik ez izatea, baita ere atxilotuaren edo espetxeratuaren duintasuna nahiz osotasun fisiko eta morala zeharo errespetatzea.

II. 2007. URTEKO TXOSTENAREN ANALISIA, TALDE BATZUEN ARAZOEI ARRETA BEREZIA EMATEA ABIAPUNTU HARTUTA

Ararteko erakundeak hasieratik zenbait jarduera-lerro ezarri zituen biztanleen talde edo sektore batzuei begira, izan ere, bere ustez, taldeok politika publikoen behar izugarria dute, bai beren eskubideak erabiltzean erabateko berdintasuna bermatzeko, bai beren duintasuna behar bezala zaintzeko, baita egoera ahulean daudenak babesteko ere. Taldeok dira, hain zuzen: emakumeak; adingabeak; atzerritarrak; adinekoak; ezinduak; terrorismoaren biktimak; gaitz kroniko fisikoak edo mentala duten pertsonak; joera homosexualekoak edo identitate transexualekoak; askatasunik gabeko pertsonak: espetxeratuak eta atxilotuak; gizartean baztertuta edo pobrezian bizi direnak; eta ijito herria eta beste gutxiengo kultural batzuk.

1. Lehenbizi, emakumeen eta gizonen berdintasuna aipatuko dut, behar-beharrezkoa baita





Emakumeek oraindik ere baldintza bereziki txarrak eta desberdinak pairatzen jarraitzen dute bizitzako arlo askotan eta, aldi berean, zailtasun eta oztupo bereziak aurkitzen dituzte beren eskubideak erabiltzeko orduan. Horregatik, politika publikoak behar dira, eta Arartekoak politika horiek ebaluatu behar ditu.

* * * * *

Generoagatik gertatzen den bereizkeriarik larriena, ordea, indarkeria matxista eta sexistaren fenomeno kezkarria da. Indarkeria matxista emakumeen duintasun, askatasun eta osotasun fisiko eta moralaren aurkako eraso onartezina da eta, kasurik larrienen, emakumeek bizia ere galtzen dute, iaz Euskadin bi aldiz gertatu zen moduan.

- 2007. urtean emakumeen kontra burutu den indarkeriari buruzko datu garrantzitsuak eta, aldi berean, oso kezkarriak eman nahi ditut.

Gure autonomia erkidegoan, emakumeen kontrako indarkeria-ekintzak salatzeke 3.869 salaketa egin ziren, alegia, 10 salaketa baino gehiago eguneko.

Datuok are kezkarriagoak dira kontuan hartzen badugu salaketa horiek salatzeraz auzartzen ez diren anitz emakumeren errealitate ikaragarriaren izebergaren tontorra baino ez direla.

- Nabarmendu beharra dago emakume horien ia erdiek (1.904k) babes-agindua eskatu dutela.

Urteko txostena ixteko unean, Euskadin 24 emakumek zuten poliziaren babesa.

Erasoak salatu dituzten emakumeen segurtasunak, baita erasoak berriz ez gertatzeak ere, kezka sortu diote erakunde honi. Indarkeria sexistaz egin genuen txosten berezian, eraso jasandako emakumeak lokalizatu eta babesteko sistemak garatzea gomendatu genuen, eraso arriskua gutxitzeko.

Beharrezkoa iruditzen zaigu arriskua baloratzeko irizpide batzuk finkatzea, baita irizpide horiek ezartzeko protokoloak ere.

Emakumeen elkarteak arrunt kezkatuta daude indarkeria matxista pairatu duten emakumeen segurtasunagatik.

Adierazi beharra dago 2005. urtean Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo Sailak honako sistema hau ezarri zuela: "Ertzaintzak etxeko indarkeriazko eta genero indarkeriazko kasuetan burutu dituen jardueren kalitatea kudeatzeko sistema".





Oso ondo iruditzen zaigu genero indarkeria nozitu duten emakumeen arriskuaren balorazioa protokolo bihurtzea, bada, horri esker, ahalik eta gehien objektibatu daitezke kasu bakoitzean ezartzen diren polizia-neurriak. Hala ere, genero indarkeriaren biktima izan diren emakume batzuek hainbat keixatan adierazi digutenez, ez daude ados beren segurtasuna bermatzeko jasotzen ari diren polizia-laguntzarekin.

- Egokitzen jotzen dugu genero indarkeria jasan duten emakumeei kasu egiteko telefonoa jartzea. Telefono hori Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak kudeatzen du, eta tratu txarren biktima izan diren emakumeei laguntza emozionala, informazioa eta orientazioa ematen dizkie, doan eta etengabe egunaren 24 orduetan.
- Tratu txarrak pairatu dituzten emakumeei laguntzeko prozesuetan, bada beste baliabide garrantzitsu bat ere: genero indarkeria jasan duten emakumeentzako etxebizitza babestuen kupoak.

2007.urtean emakume bakar bati ere ez zaio esleitu guraso bakarreko unitateentzat edo genero indarkeriaren biktimentzat gordetako kupo bereziko etxebizitzarik, izan ere, urte horretan hiru zozketa besterik ez ziren egin, eta horietan ez zuen tratu txarrak jasandako emakume bakar batek ere parte hartu.

Bestalde, alokairuan bai, zuzenean 9 etxebizitza eman zaizkie tratu txarrak nozitutako emakumeei.

Itxura denez, arau hori aplikatzeari buruzko informazio gehiago eman behar da eta koordinazio orokor handiagoa behar da.

- Horren osagarri, irailaren 11ko 148/2007 Dekretua onartu dela nabarmendu behar dugu. Dekretu horrek arautzen ditu etxeko eremuan tratu txarren biktimak diren emakumeen harrerarako baliabideak.

Gaur egun berriazko eta balio anitzeko 56 etxebizitza eta harrera-etxe daude.

Dekretu horretan ezarritakoaren arabera, etxeko eremuan tratu txarrak jasaten dituzten emakumeak sendatzeko eta gizarteratzeko intentsitate handiko zentro bat jarri nahi da martxan. Asmoak betetzen badira, aurtengoa, 2008an abiaraziko da. Gure aldetik, oso garrantzitsua iruditzen zaigu zentro hori abian jartzea.

- Sexuagatiko diskriminazio kasu batzuk kendu dituztela eta, herri-administrazioek duten jarrera ere aipatu nahi dut.

Paradoxikoa dirudien arren, 118/2007 Dekretuak –lanerako laguntzak arautzekoa da hori– gizonentzat emakumeentzat baino kopuru handiagoa





ezartzen du eszedentziagatik edo seme-alabak zaintzeko lanaldia murrizteagatik laguntzak eskatzen dituztenean.

Ekintza positibozko neurriek bi bereizgarri nagusi dituzte: behin-behinekoak dira eta horien emaitzak ebaluatu beharra dago, lortu nahi zen helburua lortu den ala ez egiaztatzearen.

Ez dago esaterik laguntza horiek sortu zirenetik (2002. urtetik) eszedentzia edo haurrak zaintzeko lanaldi murrizketa gizon gehiagok eskatu dutenik, nahiz eta horixe izan gizonaekoi tratu hobea ematearen helburua.

Gainera, berdintasun printzipioa betetze aldera, araudi hori familia-eredu berrietara egokitu beharko litzateke, diskriminatzailea izan baitaiteke emakume batek (guraso bakarreko familia) edo bi emakumek (ama lesbianak) osatutako familiekin.

- 4/2005 Legea, Emakumeen eta gizonen berdintasunerakoa, funtsezko tresna da arlo guztietan berdintasuna egiaz ezar dadin. Horregatik, lege horren xedapenak garatu eta aplikatu behar dira.

Horrela, oso garrantzitsua da generoaren araberako inpaktu-ebaluaketak egitea; Eusko Jaurlaritzaren egitura organikoak eta lanpostuen egiturak egokitzea (sail garrantzitsu batzuek, Hezkuntza eta Osasun Sailek adibidez, oraindik ez dute egokitzapen hori egin); eta Emakunderi atxikita dagoen Publizitate Ez Sexistarako Batzorde Aholku-emailea/Begira Berdintasunerako Legeko xedapenetara egokitzea, publizitatea kontrolatzeko benetako organoa izan dadin eta hedabideetan emititutako edukiei dagozkien kode etikoak berma ditzan.

- Pozik egiaztatu dugu gaur egun emakumeen eta gizonen berdintasunerako plan bat dutela hiru foru aldundiek eta 55 udalerrik (horietan biltzen dira euskal biztanleriaren 3/4).
- Berrito ere Irungo eta Hondarribiko alardeak aipatu beharrean nago. Gipuzkoako udalerrri horietako udalek jai-gune bat eratu beharko lukete emakumeek eta gizonen berdintasunez parte har dezaten, modu eraginkorrean alardearen ikuspegi berdintzaile baten alde eginez.

2. Bigarrenik, adineko pertsonez mintzatuko naiz

Adinekoek gero eta talde ugariagoa osatzen dute, zehazki, biztanleetatik %20 inguru. Horren ondorioz, botere publikoek demografian igarritako errealitate horri eta arreta handia behar duen talde horren premiei erantzun behar diete.

Adinekoentzako egoitzetako eta eguneko zentroetako plaza guztien estaldura eta etxeko laguntza nabarmenki areagotu badira ere, onartu beharra dago EAEn oraindik hirugarren adinerako gizarte baliabideak falta direla ikusten dela.





Edonola ere, baliabide falta hori ezberdina da hiru lurralde historikoetan. Lurraldeen artean aldeak ikusten dira bai sarbidean, bai lurralde historiko bakoitzean indarrean dauden gehienezko prezio publikoetan, adinekoentzako egoitzei dagokienez.

Eremu soziosanitarioaren arloan azpimarratu beharra dago Bizkaian, egoitzetan dauden adinekoek osasun-laguntza jasoko dutela bermatzeko, lurralde historiko horretako foru aldundiak eta Osakidetzak hitzarmen bat sinatu dutela, osasun-laguntza horiek ziurtatzeko.

Laguntza soziosanitarioari dagokionez, esan nahi dizuet orain dela gutxi gai horri buruzko txosten monografiko bat eman niola Legebiltzarrari. Ganbera honek eskatuta prestatu genuen, eta horren edukia Giza Eskubideen Batzordearen aurrean azalduko dugu

Bestalde, 2006ko abenduaren 14an Mendetasunaren Legea izeneko onartzearen ondorioz, hiru foru aldundiak legearen aplikazioa arautu dute 2007an hiru lurralde historikoetan. Lege horren aplikazioari buruzko alde ezberdinak pixkanaka eta erritmo ezberdinean arautu dira lurralde historiko bakoitzean.

Gainera, aldundi bakoitzak mendetasuna baloratzeko baremo ezberdinak aplikatzen ditu. Horrela, adibidez, mendeko pertsona bati, bere baremoaren arabera, egoitza publiko bateko plaza uka liezaiokete Araban, baina plaza hori lortzeko aukera izango luke, ziur aski, Bizkaian, han baremazio ezberdina dutelako.

Adinekoei tratu txarra edo desegokia ematea kezagarria da, benetan. Oso errealitate opakoa da, antzematen zaila, baina berariaz azertu beharko da.

Orobat, azpimarratu nahi dugu 65 urtetik gorako hamar pertsonatik bakarrak jasotzen duela, gaur egun, erakundeen nolabaiteko laguntza. Horregatik, burutzen diren gizarte-politiketan kontuan hartu beharko litzateke adintsuaren laguntza-sare informala. Sare hori normalean adinekoaren senideek osatzen dute –gehienetan, emakumeek –.

3. Adingabeen arazoei berariazko arreta emateari buruz, beste behin ere argi utzi behar da adingabeak eskubideak dituzten subjektuak direla, baina, gainera, berez dituzten ezaugarriengatik, oso biztanle-sektore ahula osatzen dutela, bermatu behar diren eskubide bereziekin. Horregatik, Arartekoak berariazko eta lehentasunezko arreta behar duen taldetzat jotzen du talde hori.

Aldi berean, badira, beren eskubideei dagokienez, arrisku berezian dauden hainbat talde: babesik gabeko haurrak eta nerabeak, bakarrik dauden adingabe atzerritarrak; adingabe lege-hausleak; hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak; buru-osasuneko arazoak dituzten haur eta nerabeak, edo atxilotutako adingabeak.





Familiaren babesik gabeko haur eta nerabeei buruz, berriro zenbait arazo antzeman dira familien biltokietan: toki horien segurtasunarekin, alderdikierarik ezarekin, kudeaketa-sistemarekin... zerikusia duten arazoak. Gure erkidegoko zazpi biltokien artean ikusi den egoera-aniztasunak are beharrezkoagoa egiten du oinarrizko araudi bat izatea. Dagoeneko araudi baten zirriborroa egin du Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak, eta, jendaurrean iragarri denez, indarrean egongo da uda iritsi baino lehenago.

Behar berbera ikusten da harrera-zentroetako oinarrizko gaiak arautzeari buruz: egoera fisikoa, bizikidetasun-arauak, hezitzaile taldeak, bere kideen eskubide eta betebeharrak, e.a. Baliabide horietako gehienak zenbait elkartek kudeatzen dituzte, hitzarmen bidez, baina ez dute araudirik, eta araudi batek segurtasun handiagoa emango lieke beraien jardueri.

Harrera-zentroek bete beharreko gutxienezko baldintzak arautzea presa handiko eta beharrezko zeregina da bakarrik dauden adingabe atzeritarrentzako berariazko zentroen kasuan.

2007. urtean zeuden zeudenean mantendu dira edo, areago, izugarri ugartu dira adingabe talde horri eragiten dioten arazoak: zentroak gainezka daude (bereiziki larrialdietako harrera-zentroak), istiluak daude eta gatazka-sortzailearen irudi publikoa dute, adingabearen hezur-frogen eta agirien emaitzei eman behar zaien balioari buruzko kontrako iritzia daude, agiriak motel bideratzen dira, ez dago adingabeen emantzipazioa errazteko baliabiderik, erkidego edo lurraldeen artean ez dago irizpide komunik... Dударik gabe, aipatu dugun hori egoera kezkarrietako bat da adingabeen eskubideen ikuspegitik, eta, ziurrenik, baita konpontzen zailenetako bat ere, bai behintzat orain eskura dauden baliabideekin edo orain arte erabili diren irizpideekin.

Batzuetan, normalean harrera-zentroetakoren batean sorturiko zertzeladaren bat dela eta, gizartean eztabaida sortzen da. Eztabaida horrek talde osoaren estigmatizazioa eragiten du eta, are gehiago, erakundeentzat berentzat ere baliabide berriak sortzeko oztopo bihurtzen dira. Egoera hori gaitzesgarria da. Horren haritik, arartekoak bere onspena eta elkartasuna adierazi nahi dizkie arlo horretako erakunde eskudunei, gizakiaren duintasuna errespetatuz adingabe horiek artatu eta babesteko legezko betebeharrak betetzen egiten duten ahaleginagatik. Aldi berean, berriro hitz ematen du bere ardurapeko eginkizunak zorrozki betetzen jarraituko duela: alde batetik, herri-administrazioen jarduerak ikuskatzea, eta, bestetik, gizarte-pedagogia bultzatzea, oso beharrezkoa baita arlo honetan.

Aitzitik, esperientzia emankorrek nabarmendu daitezke adingabe horien lanbide-prestakuntzan, laneratzean edo tutoretzapeko etxebizitzetan emantzipatzean.

Adingabe lege-hausleei buruz edo Adingabeen Erantzukizun Penalaren gaineko Legeak zigor handiago ala txikiagoak ezarri beharri buruz ere eztabaidatzen da





gizartean. Eztabaida hori, neurri batean, gertakari larriek edo gizartean eragin handia izan dutenek elikatu dute.

2006 eta 2007. urteetako datuek erakusten dutenez, epaileek sarritan esku hartzen dute (horrek desegin egiten du inhibizioaren edo zigorrak ezaren ideiak), nahiz eta, neurriak aplikatzerakoan, epaitegien artean alde nabarmenak dauden. Horrela, gero eta neurri gehiago ezar daitezke, bitartekotza-lanak edo gizartearen mesederako lan egiteak indar handia dute. Hori oso ongi iruditzen zaigu. Aitzitik, bi elementu negatibo aipatuko ditugu: bat, gehitu egin direla askatasuna gehien mugatzen duten neurriak (barneratzeak); eta bi, ezaugarri jakin bat dutela neurri horiek pairatzen dituzten adingabeek: hain zuzen, babes-sistemetatik etorritako adingabeak dira, bakarrik dauden adingabe atzerritarrak, beren familiei eraso egiten dieten adingabeak, legea behin eta berriz hausten dutenak, burutik gaixo dauden edota droga kontsumo gatazkatsuak dituzten adingabeak...

2007an nabarmenki gehitu da barneratze-neurriak betetzeko dauden plazen kopurua, eta inguru irekian neurriak aplikatzeko baliabideak eta hitzarmenak ere ugaltu dira.

Hezkuntza-premia bereziak edo berariazkoak dituzten talde batzuk eskolatzeari buruz, berriro argi utzi behar dugu horrelako ikasleen banaketa orekatua bermatu behar dela (gizartean eskola-ghettotzat edo bereziki gatazkatsutzat jo daitezkeen ikastetxeak eratu ez daitezkeen ahalegintzeko) eta konpentsaziozko irizpideak erabili behar direla laguntzak eta baliabideak banatzeko orduan.

Azken ikasturte honetan ikusi dugunez, gutxitu egin dira ezintasunen baten ondoriozko hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak, baita ikasle atzerritarrak ere. Ez da aztertzerik izan ijito herriko ikasleen bilakaera, ezta gizartean egoera txarrean dauden ikasleena ere.

Sistemaren ekitatea bermatze aldera, sarriago aztertu behar dira, guk uste, sektore horien eskolatzeko baldintzak eta, bereziki, eskolako emaitzak (arrakasta eta porrot tasak).

Haur edo nerabeen buru-osasunari eman beharreko arreta, oraindik ere, lehentasunezko gaitzat nabarmentzen dugu. Gure sistemak ez du baliabiderik biztanle tarte batzuentzako edo arazo jakin batzuetarako. Gainera, erakunde honek bildutako iritzi eta datuen arabera, beste arazo eta adin batzuetarako ere baliabideak eskasak dira, argi eta garbi, eta nahigabe handia sortzen dute. Kasurik gatazkatsuenetan, baliabiderik ezaren ondorioz, adingabeak baliabideak badituzten beste erkidego batzuetara bidali behar izaten dituzte.

Adingabeak atxilotzeko baldintzei dagokienez, ostera ikusi dugu polizia-etxe batzuetan ez dutela adingabeentzako berariazko tokirik. Gainera, 2007an, polizi kidegoek ustez indarra neurritz gain erabili dutela salatu den kexa gehienetan, adingabeen edo gazteen atxilotetek eragin zituzten kexak.





Eskolako jazarpenari buruz, erakundeak aurten iaz baino kexa gutxiago bideratu ditu. Horrelako egoeraren gaineko kontsulta edo salaketa dezente hezkuntza-sistemara bertara bideratu dira, esku hartzeko bere protokoloak baititu eta horiek berraztertu baititu. Ikasleen eskubide eta betebeharren dekretuari dagokionez, oraindik aldatzeko dago.

Aztertu diren gaietatik honako hauek nabarmendu nahi ditugu zalantza barik, arduratzeko modukoak baitira, erakunde honi dagokion eskubideen ikuspuntutik: bakarrik dauden adingabe atzerritarren arazoak, adingabeen buru-osasuneko arazoei ez erantzutea edo modu egokian ez erantzutea eta babes-tokiak edo biltokiak bezalako balia bideak arautzeko oinarrizko araudi bat ez izatea.

Arartekoaren Adingabeen Arloak 2007an burutu dituen jarduerak informazio ugari sortu du adingabeen egoerari buruz eta erakundeek egoera ezberdinei erantzuteari buruz. Txostenean informazio hori laburtzeko ahalegin izugarria egin dugu, baina onuragarriagoa iruditu zaigu informazio hori txosten monografiko batean biltzea eta aurten ematea. Txosten horretan, erakundeen ardurapean, arriskuan edo ahulezia-egoeran dauden haur eta nerabeen diagnostikoa egingo da (hortxe azalduko dira babes-sistemako adingabeak, adingabe atzerritarrak, adingabe lege-hausleak, hezkuntza-premia berezia duten adingabeak, portarera-arazoak edo buruko gaixotasunak dituzten adingabeak, sasoikako langileen familien haurrak, e.a.).

4. Atzerritarren eskubideak dira urratzeko arrisku handiena dutenak

Immigrazioa gizarteko, ekonomiako, kulturako edo laneko bizitzari eragiten dion gizarte-egintza da eta azken urteotan garrantzi handia hartu du, bere kopuruagatik. Bere bereizgarri nagusietako bat jatorrien eta egoera pertsonalen aniztasuna den arren, zenbaitetan gizarte bazterkeria gertatzeko arriskua dago, eta pertsona batzuek bereizkeria jasaten dute beren etnia- edo arraza-jatorriagatik. Herri-administrazioen jarduera funtsezkoa da horrelako egoera txarrak arintzeko eta eragozteko. Talde horri dagokionez, Arartekoaren jarduerak helburu nagusi bat du: haien bizimodu duina eta oinarrizko eskubideak babestea.

Europar Batasunetik kanpokoak diren atzerritarren behar nagusietako bat zera da: legezko eran lan egitea eta bizitzea baimenduko dien dokumentazioa lortzea. Estatuko Administrazio Orokorrek du aipaturiko dokumentazioa izapidetzeko eskumena. Horregatik, Estatuko Herriaren Defendatzaileari bidali dizkiogu nagusiki dokumentazio prozesuarekin zerikusia duten kexak.

Beste zenbait kexa ere jaso dira Barne Ministerioari eta Erregistro Zibil Nagusiarri dagozkion espedienteak bideratzean atzerapenak izan direlako. Azken kasu honetan, deigarria da zer zailtasun dituzten marokoar jatorriko pertsonak hemen bizitzearen ondorioz nazionalizatu diren eta, bikotekidearekin berriz elkartzeko, biek Erregistro Nagusian izena eman behar dutenean. Izen-ematea 18 hilabete baino gehiago atzera daiteke.





Halaber, azpimarratzekoa da zein garrantzitsua den udalek sustraize sozialari buruzko txostena betetzea, izan ere, sustraitze sozialaren prozedura hori da, gaur egun, atzerritarrei gure lurraldean bizi eta lan egiteko baimena emango dien dokumentazioa lortzeko bide nagusia.

Nabarmendu beharra dago, orobat, egoera irregularrean dauden atzerritarrentzat oso garrantzitsua dela udal erroldan izena ematea.

Bereizkeriaren aurkako borroka funtsezkoa da gizarte desberdintasunak gainditzeko eta gizarte bazterkeriako prozesuei aurrea hartzeko. Hori gogoan izan behar da. Botere publikoak behartuta daude bizitzaren oinarriko eremuetan arraza edo etniagatiko bereizkeriaren aurka egitera, besteak beste, enpleguan, lanbide prestakuntzan, hezkuntzan, etxebizitzan, gizarte babesean edo gizarte abantailetan.

Erakunde honek honako gomendio hau nabarmendu du 2007an: *"Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoen menpeko polizi kidegoek jokaera kodeak erabili behar dituzte immigrazioari buruz ematen duten informazioaren tratamendurako"*: Ontzat jotzen dugu Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo Sailak honako hau egiteko erakutsi duen borondatea: *"hedabideei ematen zaien informazioa talde nazional zehatz batzuen irudirako justifikaziorik gabeko kalterik ez eragiten saiatzea"*.

Azkenik, oso garrantzitsua da herritarrei oro har informazioa ematea gizarte prestazioak jasotzeko baldintzei buruz eta berdintasunerako eskubideari buruz, gizarte laguntzak har ditzaketen atzerritarrenganako errefus jarrerak ekiditeko.

5. Ijito etniako pertsonak oso laidoztatuak izan dira historian zehar, eta gizarte zerbitzu, baliabide eta aukeratarako sarbidea mugatuagoa izan dute

Gure erkidegoan ijito herria osorik bultzatzeko eta gizarteratzeko plan zehatza egon arren, talde horretako biztanleen zati handi batek baztertuta geratzeko arrisku handieneko taldea izaten jarraitzen du. Kasu batzuetan, Euskadiko udal batzuek benetan udalerrian bizi diren ijito familiei erroldatzeko ezezkoa eman dietela sumatu da.

Era berean, bizikidetz-, mesfidantza- eta arbuio- arazoak ikusi dira ijitoen eta udalerriko auzotarren artean, edo tokiko administrazioarekin berarekin. Arazo horiek zenbait faktorek sortuak dira, baina, tamalez, oraindik talde horrekiko arbuio xenofoboa dago.

Herri-administrazioek beren gain hartu behar dituzte auzo batzuen biziberritze sozialeko, berrantolaketakoko eta osoki birgaitzeko prozesuak, eta herritarren gizarte beharrei erantzun behar diete.





Etxebizitzarekin lotutako arazoek modu berezian eragiten diote talde honi. Gizartean baztertuta daudenek edota soldata ertainak edo baxuak dituztenek etxebizitza lortzeko zailtasunak izateaz gain, jabeek ez diete ijitoei alokatu nahi izaten. Horren ondorioz, ijitoek askotan oinarritzko bizigarritasun eta osasungarritasun baldintzak betetzen ez dituzten tokietan sartu behar izaten dute.

Egoera oso kezagarria da, bereziki, ia ijito familia guztietan adingabe ugari dagoela kontuan izanda. Familiako kide batzuen osasun egoera larria da eta, dudarik gabe, larriagotu egiten da infraetxeetan biziagatik edo etxerik ez izateagatik.

6. Bestalde, pertsona ezinduek ere zailtasun handiak aurkitzen dituzte eguneroko bizimoduan gainerako biztanleekin benetako berdintasuna lortzeko, hirigintzako eta erabilera publikoko eraikinetara sartzeko arazoengatik, kasu askotan garraio biderik erabiltzerik ez dutelako, edo laneratzeko arazoengatik

Garraio publikoaren irisgarritasuna oraindik ere arazoa da ezinduentzat, azken urteotan hiri garraioaren arloan asko aurreratu den arren eta horri esker autobus multzoa egokitzeko portzentajeak oso altuak izan diren arren, hiri arteko garraioa oraindik ez da egokitze maila egokietara hurbiltzen. Hori gorabehera, onartu behar da tartean diren administrazioak ahalegin handiak egiten ari direla garraio publikoaren erabiltzaileei ibilgailu egoki gehiago eskaini ahal izateko.

Hala ere, hiri garraioaren irisgarritasunak oraindik kexak eragiten ditu, ez hainbeste autobus egokituak falta direlako, baizik eta horien ekipamendua behar bezala erabiltzen ez delako.

Hirigintzaren arloan honako hauek aipatu behar dira: udalek ez dute kontrolatzen ea irisgarritasunari buruzko araudia betetzen den merkataritzako lokaletan jarduera berriak jartzean edo aldaketak egitean; udalerrietako espaloiak beharrezko lanak oker egitean, horien tamaina nahikoa ez delako edo lauza desegokiak jarri direlako.

Eraikinen barruan arkitektura-oztopoak kentzea, edo, zehazkiago esanda, igogailurik ez duten eraikinetan igogailua jartzea herritarrek gero eta gehiago eskatzen duten zerbait da, beste arrazoi batzuen artean, gure biztanleria gero eta gehiago zahartzen ari delako.

Administrazioek arkitektura-oztopoak kentzen lagundu behar dute lehendik dauden eraikinetan, baina ezarri beharreko sektoreko arauak betetzen direla zainduz.

Zenbait kasutan, igogailu bat jartzeko, beharrezkoa izango da erabilera publikoko lurzorua hartzea. Halakoetan, interes publikoaren mesedetan, oro





har, instalazio hori egiteko beharrezkoa den espazio publikoa libre utzi beharko da eta inguruko auzotarren elkarteei jakinarazi beharko zaie.

Gure zerga-sisteman ez dago ezintasunaren tratamendu bateratzailerik eta, horren ondorioz, gero eta koordinazio falta handiagoa dago arauak betearazi behar dituzten artean. Horrela, esate baterako, PFEZ erregulatzen duen araudiak ezintasunagatik onurak aplikatzen dizkie ezintasun iraunkor osoa, ezintasun iraunkor absolutua eta baliaezintasun handia duten pentsiodunei ere, eta zehatz-mehatz arautzen ditu baliaezintasuna egiaztatzeko eta frogatzeko kontuak.

Ezintasunen bat duten pertsonak oraindik ez daude konforme udal batzuek eragozpenak jartzen dituztelako trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zergan salbuespena aplikatzeko.

Eskolaren eremuan, diabetesa duten eta logopedia laguntza behar duten haurren arazoak aipatu behar dira.

Behin eta berriz egiten dituzte kexak mugikortasun urriko pertsonak, ezintasun txartela dutenek: hain zuzen ere, beren ibilgailua aparkatzeko eragozpenak aurkitzen dituztela salatzen dute, gordetako aparkalekuak nahikoak ez direlako edo zenbaitek plaza horiek edo aparkatzeko txartelak berak modu desegokian erabiltzen dituztelako.

Mugikortasun urriko pertsonentzat gordetako aparkalekuen erabilera desegoki horri buruz, berriro argi utzi behar dugu udalek irmo era erabakitasunez esku hartu behar dutela pertsona horien eskubideak babesten, arreta berezia jarriz legeriak pertsona horientzat gordetako plazen erabilera behar bezala egin dadin zaintzean.

Kexa batean, honako egoera hau azaldu digute: pertsona batek mendetasun maila handia du, 65 urtetik beherakoa izan arren, eta bere etxean bizi da. Kexa horretan agerian jarri da arreta-zerbitzuak falta direla mendetasun mota jakin batzuek arduratzeko, eta arreta horren hainbat alderdi hobetu behar direla.

Ikusi denez, edozein motatako mendetasuna artatzeko egoitza-plazak behar dira, eta aldundien eta udalen arteko koordinaziorako tresnak ezarri behar dira, kasu horietan etxeko laguntza zerbitzua behar bezain bizkor egin dadin.

7. Legerian aurrerapauso handiak egin diren arren, joera homosexualeko pertsonak, gay eta lesbianek, baita identitate transexual edo transgenerokoek ere oraindik bereizkeria, irainak eta gizarte bazterkeria jasaten dituzte, homofobiazko eta heterosexismo eskusibo eta baztertzailazko jokabideak direla medio.

Transexualentzat garrantzi ikaragarria izan du martxoaren 15eko 3/2007 Legea onartzeak. Genero Identitatearen Legea deitzen zaio eta pertsonen sexuari





buruzko aipamena erregistroan zuzentzea arautzen du. Lege horren bidez erantzun zaio, hain justu, pertsona transexualen genero identitatea juridikoki erabat onartzeko eskaerari, jaiotzeko ezaugarri biologikoak edo sexua berriz asignatzeko medikuntzaren esku-hartzerik izan den ala ez kontuan hartu gabe.

Pozik egon behar dugu, orobat, Legebiltzar honetako batzorde txostengile baten lanaren ondoren, azkenean, sexua berriz asignatzeko prozesuek Osakidetzaren prestazioetan sartzeko bide bat aurkitu dutelako (jakina denez, prozesu horiek ezinbestekoak izaten dira generozko disforia kasu anitzetan).

Pertsona batzuek beren kezka helarazi digute, beren iritziz, homosexualek haur bat adoptatzeko zailtasunak aurkitzen dituztelako edo tratu desberdina ematen zaielako. Ez da egiaztatu euskal administrazioen aldetik inolako bereizkeriarik egon denik. Agerikoa da, ordea, zenbait herrialderen jarreragatik, nazioarteko adopzioaren arloan tratu desberdina ematen zaiela, kaltegarriagoa, pertsona eta bikote gay eta lesbianeiei. Tamalez, ez dugu gai horretan esku hartzeko aukerarik.

Zernahi gisaz, erakunde honek errealitate hori aztertuko du, bere kontrol-eskumenen eremuan sexu bereko ezkontideei edo bikoteei adoptatzeko trabarik jartzen ez zaiela egiaztatzeko.

Ararteko erakundeak orain dela gutxi argitaratu du *Participación y visibilidad de las mujeres lesbianas en Euskadi* izenburuko lana. Bertan, besteak beste, emakume lesbianeiei beren lesbianismoa erabat ikusgarri egitea izugarri zaila egiten zaiela egiaztatu da.

Lesbianek bizi dituzten eragozpen orokorrak larriagotu egiten dira emakume adintsu, etorkin, ijito edo ezindu fisiko edo psikikoen kasuan, baita ere ezkontza heterosexuala egin duten emakume ezkonduen kasuan. Ere horietan handiagoa da gizarteko bazterketa eta ahultasuna, eta gehiago kostatzen da lesbianismoa onartzea, bai beraien gertuko inguruetan, bai gizarte-beharrak dituzten lesbianek erabilitako gizarte-zerbitzuetan ere. Gainera, talde horiek aukera gutxiago izaten dituzte lesbianen sozializaziorako baliabideetara iristeko.

8. Terrorismoaren eta jazarpenezko indarkeriaren biktimak ere aipatu nahi ditut

Ararteko erakundeak sentiberatasuna agertu izan du beti terrorismoaren biktimgenganako, eta, horregatik, erakunde honentzat lehentasunezko arreta merezi duen taldeetako bat da. Betidanik ahalegindu gara, eta oraindik ere horretan dihardugu, biktimei une orotan elkartasuna eta gertutasuna adierazten, eta, aldi berean, nabarmenarazten beharrezkoa dela botere publikoek eta gizarteak konpromiso tinkoagoa har dezaten, alde batetik, pertsona horiek bizitu duten eta oraindik bizi duten egoera agerian jartzeko, eta, bestetik, behar duten arreta eskaintzeko, jasandako kaltea konponduz eta erasotua eta zikindua izan den duintasuna lehengoratu.





Nolanahi ere, oraindik hala egin ez duten botere publiko guztiei eskatu nahi diet bete dezatela Legebiltzar honen osoko bilkurak 2003ko ekainaren 25ean onetsi zuen terrorismoaren biktimen egoerari buruzko legez besteko proposamena, baita ere osoko bilkurak 2005eko otsailaren 17 eta 18an onartutako irizpena ere.

Orobat, azpimarratu nahi dut Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza oso lan garrantzitsua egiten ari dela.

Gainera, legebiltzar honen goi ordezkari gisa, atseginez egiaztatu dut Terrorismoaren Biktimen Batzorde txostengileak oso lan ona egin duela; biktimak onartzeko jarrera tinkoa ikusi dela, haiek gogoan izateko asmoz "Gauerdiko iparrorratza" deritzan monumentua inauguratu denean; biktimei buruzko erakusketa bat antolatu dela –orain bertan legebiltzarrean ikus daiteke–; zenbait plaka jarri direla, ETAk hildako euskal legebiltzarkideen oroigarri.

Euskal erakundeek eredutzat hartu beharko lukete oraintsu eraildako Juan Manuel Piñuel guardia zibilar legebiltzarrean egin zaion omenaldia.

Azkenik, terrorismoaren biktimak onartu eta babesteko legea adostasunez onartzea nahiko nuke, orain bideratzen ari baita legebiltzar honetan.

9. Gaixo kronikoen taldeak, hasiera batean, tratamendu edo zainketa sendagarritzat ezagutzen ditugunak ez diren beste batzuk eskatzen ditu

Osasun-sistemak, beste arazo batzuen artean, gaixo kronikoei egin behar die aurre. Gero eta sarriago biltzen dira gaixoen elkarteetan, beren eskubideak defendatzeko. Azken urteotan, agerikoa da zenbait gaixotasun dituzten pertsonen egoeraz arduratu beharra dagoela. Gaixotasun hauez mintzo gara, adibidez: epidermiolosi bullosoa, bizkarrezur bifidoa eta hidrozefalia, fibromialgia eta neke kronikoaren sindromea edo ihesa. Gaixotasun horien tratamendua ez ezik, badira beste garrantzizko beste arazo batzuk ere: gaixoek egin behar dituzten gastu ikaragarriak, eta gastu horiek nola finantzatzen diren.

Buru-osasunaren arloan, biziki kezkarria da buru-gaixo kronikoen egoera. Askotan, eskizofrenia edo buruko beste gaixotasun larri eta kronikoak dituzten pertsonak tratamendua uzten dute, eta horrek birgaixotze psikotikoa gertatzeko aukerak gehitzen ditu. Horregatik, berriro diogu, gogoeta egin behar da behartutako tratamendu anbulatorioaren gainean, eta araudian horretarako aldaketarik egin beharko den hausnartu. Buru-gaixo kronikoen bizitoki izan daitezkeen ordezkari baliabideen proiektu bateratu eta berariazkoa sortu behar da, osoko birgaitze psikosozialaren proiektu globalaren barruan.

Jasotako kexei dagokienez, hiru arazo-gune azpimarratuko ditugu:





- Desadostasunak daude Euskal Osasun Sistemako zerbitzuekin.
- Tratamenduak edo medikuen laguntza jasotzeko arazoak daude.
- Berariazko baliabide jakin batzuk falta dira.

Bukatzeko, nabarmendu behar dugu 2007an zenbait ekimen gauzatu direla, legeria berri bat planifikatzeko edo onartzeko, eta horrek eragin zuzena duela aztertzen ari garen gaian. Horrela, honako hauek aipa ditzakegu, esate baterako:

- "Mendetasunaren Legea" deritzana onartu eta garatzea.
- Zainketa aringarriei buruzko euskal plana (2006-2009).
- Buruko gaixotasuna tratatzeko asmoz Estatuan bultzatu diren akordioak.
- 2005-2008 bitarteko arreta soziosanitarioko plan estrategikoa.
- Euskal Osasun Sistema Publikoan gaixotasun kronikoetatik birgaitzeko hobekuntza proiektua (2007-2009). 2007an aurkeztu zitzaion Legebiltzarrari.

10. Orobat, erakunde honi askatasunik gabeko pertsonen eta atxilotuen eskubideak ardura zaizkio

Askatasunik gabeko zigorrak presoak gizarteratzera zuzendu behar dira. Espainiako Konstituzioan ezarritako agindu hori botere publiko guztiei dagokie. Printzipio hori aintzakotzat hartu behar da ez bakarrik politika penitentziarioa diseinatzean, baizik eta baita ere espetxeetan burutzen diren jarduera guzti-guztietan. Halaber, ados gaude herrialde demokratikoetako espetheen arloan diharduten gizarte-erakundeek eta giza eskubideen aldeko erakundeek azaldu duten ideia honekin: gizakien aldeko printzipioak beti aintzat hartu behar dira espetheen eremuan hartzen diren erabakietan.

Erakunde hau sarritan mintzatu izan da espetxe arloko eskumen-eskualdaketaren alde, uste baitu horrek Euskadiko espetheen baldintzak hobetzea ekarriko lukeela, baina hori gertatu arte, euskal herri-administrazio guztiek konpromiso bat izan beharko lukete, bakoitzak bere eskumenen esparruan, euskal espetxeetan sartuta dauden pertsonen beharrei erantzuteko.

Hirugarren graduan sailkatutako presoek kopurua gehitu ahal izateko, garrantzitsua da hori sustatu eta bideratzeko baliabideak jartzea, eta espetheen administrazioaren eta arlo honetan diharduten elkarten arteko interakzioa. Era berean, espetxe-zigorraren ordeko zigorrak betetzeko komunitatean dauden baliabideen eskaintza bultzatu behar da.

Kezkagarria da espetxeko psikiatrian zein baliabide gutxi dituzten, kontuan hartzen bada askatasunik gabeko pertsonen artean gero eta buru-gaixotasun gehiago dagoela, patologia dualak, esate baterako.

Gaitz sendaezinak dituzten presoek egoera ere azaldu digute. Kasu batzuetan, ez dituzte espetxetik atera politika penitentziarioko arrazoiengatik, baina beste





zenbaitetan ez dute espetxetik ateratzerik izan komunitatean gaixotasun larriko preso horiek artatzeko baliabiderik ez zegoelako.

Azkenik, preso asko ez daude ados beren sailkapen penitentiarioarekin edo irteteko eskatu dituzten baimenak ukatzearekin.

* * * * *

Atxilotutako pertsonen eskubideei dagokienez, lanean jarraitu behar da tratu txarrak edo tortura eragozteko mekanismoak hobetzeko eta osatzeko. Horren haritik, 2004ko azaroan egin genuen erakunde-adierazpenean azaldutakoa errepikatu behar dugu. Adierazpen hura pertsona guztien duintasuna eta osotasun fisiko eta morala bermatzeko asmoz egin genuen, eta prebentziozko hainbat neurri proposatu genituen. Euskal Herrian jarduten duten polizia kidego guztietako agintari eskudunek, baita bertakoek ere, helburu horiek betetzeko konpromisoa indartzea nahiko nuke.

Argi utzi behar da tortura giza eskubideen urratze larrienetako bat dela; horregatik, Ararteko erakundeak pertsona guztien osotasun fisiko eta morala bermatzeko jarrera erakutsi izan du beti, eta zenbait neurri proposatu ditu zigorgabetasuna babestu dezaketen denborak eta espazio opakoak kentzeko.

Esan dudanez, Arartekoak prebentzio-lana eginez esku hartzen du, polizien jarduerak etengabe ikuskatuz, polizi kidegoek torturarik edo tratu txarrak ez emateko mekanismoak jartzeko edo, bestela, legez kontrako jarduerak agerian jarri eta zigortzeko.

Tortura eragozteko neurrien artean, gogoratu Ararteko erakundeak 1999an zer gomendatu zion Herrizaingo Sailari prebenitzeko asmo horrekin: ziegen aldeko pasilloetan kamerak jarri eta haiekin egindako grabaketetan oinarrituriko kontrol-sistema bat jar zezala, atxilotuen eskubideak bermatze aldera.

2006an, Herrizaingo Sailak adierazi zigun jarri zuela bidegrabaketa sistema hori Krimen Gaietarako Polizi Atalaren mendeko atxiloketa-zentroetan, eta deklarazioak hartzean ere erabiltzen zituztela.

Erakunde honi oso egokia iruditu zitzaion Ertzaintzak egiten dituen atxiloketa guztiak grabatzea eta sistema hori deklarazioetara ere hedatzea. Askotan adierazi dugunez, bi neurriok aurrerapauso garrantzitsuak dira atxilotuen osotasunaren eta duintasunaren kontrako jarduerak prebenitzeko, eta tresna egokia alor horretan gerta daitezkeen jarduera irregularrak argitzeko.

Ertzain-etxe batzuetara egindako ikustaldietan, bidegrabaketa sistema horiek egiaz jarrita daudela egiaztatu dugu. Hala ere, ez dira bete erakunde honek proposaturiko zenbait neurri: adibidez, atxiloketa guztien grabaketak sistematikoki errevisa daitezela; erregistro bat eratu dadila, irudiak ikustean antzeman daitezkeen gertakariak agiri bidez jasota uzteko; edo grabatutako





materiala gordetzeko epe jakin bat ezar dadila, grabaturiko irudien ondorioz bidera daitezkeen prozesu judizial edo administratiboetan erabili ahal izango direla bermatzeko.

Beste alde batetik, Donostiako Udalaren atxilotuentzako zaintza gelan ere bidegrabaketa sistema bat jarri dute, eta sistema horrek ziegen barrualdea nahiz ziegen aldean ibiltzeko dauden eremuak hartzen ditu. Horri guztiz on deritzogu. Dena den, komenigarria litzateke Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo Sailari gomendatu zaizkion zenbait neurri ere hartzea (grabatutako materiala sistematikoki aztertzea, material hori gordetzeko epea ezartzea eta gertakariak erregistroan jasotzea), oraindik ez baitira neurri horiek hartu eta ez baitzaizkio bidegrabaketa sistemari gehitu.

11. Azkenik, gizartean baztertuta edo pobrezian bizi diren pertsonen hitz egin nahiko nuke

Larriki baztertuta bizi diren pertsonen kopurua hazi egin dela eta beraien zertzelada pertsonalak okerrera egin dutela egiaztatu denez gero, talde honekin berariaz esku hartu behar izan da. 2006. urtean, *Etixerik gabe eta bazterkeria larrian dauden pertsonen premiei emandako erantzuna* izenburuko txosten berezia egin genuen. Txosten horretatik abiatuta, agerian jarri genuen fenomeno horren orduko egoera, une hartan zeuden baliabideak bildu genituen, eta zeuden gabeziak antzeman.

Gogoan izan behar da, garrantzitsua baita, talde horren oraingo egoera, agian, oso arrazoi ezberdinengatik hasiko zen bazterketa prozesu baten ondorioa dela. Arrazoi horiek askotan elkarri gainjartzen zaizkio: lan eskasia edo ezegonkortasuna, bereizkeria pairatzea (etniagatik, sexu joeragatik, erlijioagatik...), etxebizitza bat lortzeko edo mantentzeko zailtasuna, gazteegia izatea edo hirugarren adinera iristea alboan laguntzeko familiarik izan gabe, sustantzia toxikoak hartzea, ezintasunen bat izatea, lan egiteko administrazioaren baimenik ez izatea, e.a. Lehen ezarri ziren prebentzio mekanismoetatik bakar batek ere funtzionatu ez duelako iritsi dira pertsona horiek egoera horretara. Asko egoera normalizatuetatik datoz: izan zuten lana, familia, etxebizitza... Baina, une jakin batean, arazoak pilatu zitzaizkien eta ez zuten familiaren, gizartearen edo erakundeen laguntzarik jaso; beraz, larriki baztertuta geratu ziren eta, anitz kasutan, kale gorrian bizitzen jarri behar izan zuten. Bigarrenik, sufritzen duten bazterketaren ondorioz, sarritan ez dute inolako laguntzarik jasotzen, baliabideak eskuratzeko ezarritako baldintzak betetzen ez dituztelako (hala nola, Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrri batean erroldatuta egotea) edo baliabide horiek beren beharretara egokitzen ez direlako.

Araudi arloko berrikuntza garrantzitsu gisa, aurten argitaratu da ekainaren 22ko 4/2007 Legea. Horren bitartez aldatu dira Gizarte Bazterkeriaren aurkako maiatzaren 22ko 12/1998 Legea eta Gizarte Eskubideen Agiriari buruzko abenduaren 27ko 10/2000 Legea. Aldaketaren ondorioz, oinarritzko errentaren





prestazioan laguntza osagarri bat ezarri dute, ohiko etxebizitza edo bizitoki gastuei aurre egiteko. Gizarteratzeko erakunde arteko II. Plana ere onartu da. Horiek aplikatzeko tresnak oraindik martxan jarri ez badituzte ere, bi instrumentu horiek gizartean bazterturik geratzeko arriskuan dauden pertsonen behar berrietara egokitzeko asmoz sortuak dira.

Foru aldundiak dagoeneko betetzen ari dira bizitokirik gabe eta larriki baztertuta bizi diren pertsonen buruzko txosten berezian egin genituen gomendioetako batzuk.

Horrela, Arabako Foru Aldundiak GIB duten gaixoak hartzeko "Besarka etxea"ren funtzionamendua malgutu du, beste patologia batzuk dituzten pertsona batzuei sartzeko aukera emanaz (patologia psikiatriko larriak dituztenei edo desintoxikazio prozesuetan daudenei). Erabaki hori ontzat jotzen dugu. Halaber, hirugarren graduan sailkatutako presoek laguntzeko etxebizitza bat finkatu da, eta bigarren graduan sailkatutako presoentzako gizarte- eta hezkuntza-proiektu bat abian jarri da.

Bizkaiko Foru Aldundiak foru-erantzukizuneko zerbitzuak zehaztu ditu gizarteratzearen arloan, eta koordinazio neurri garrantzitsuak hartu ditu. Gizarteratzeari buruzko foru-zerbitzuetara iristeko, kudeaketa-eredu zentralizatu bat ezarri du eta gizarteratzeko egoitza-zerbitzuetan eta egoitzaz kanpoko zentroetan plaza-kopuru garrantzitsua sustatu du.

Gipuzkoako Foru Aldundiak oso neurri interesgarriak abiarazi ditu, esate baterako, larrialdietako gizarte-zerbitzua. Zerbitzu hori egunaren 24 orduetan ezarriko da. Eta ostatu emateko zerbitzuen eta gizarteratzeko programen katalogo bat ere prestatzen ari da.

Oraindik gabezia handiak daudela ikusi dugun arren, onartu beharra dago botere publikoek egunetik egunera gehiago esku hartzen dutela.

* * * * *

Nire mintzaldia bukatzeko, adierazi nahi dut interesgarriak iruditzen zaizkigun beste gai asko geratu direla jorratu gabe, eta horiek txostenean aurkituko dituzuela.

Txosten honek beste irakurketa batzuk egiteko aukera ematen du, eta aipaturikoak bezain garrantzitsuak diren beste gai batzuk nabarmendu zitezkeen. Hemen haiek ez azaltzeak ez du esan nahi, ez horixe, aintzat hartzen ez ditugunik, baizik eta azalpen honek iraupen mugatua duela eta denbora-muga hori errespetatu behar dudala.

Benetan eskertzen dut Ararteko erakundeko langileek egiten duten lana. Horiek gabe, ezinezkoa izango litzateke hemen islatu diren jarduera guztiak egitea.





Besterik gabe, eskerrak eman nahi dizkizuet zuen arretagatik, eta legebiltzar ordezkari gisa laguntza eskatu nahi dizuet berriz, estatutuak eta legeak eman dizkidaten zereginak bete ahal izateko.

Eskerrik asko.

